

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

IRAGARKIA, 1/04 zk.ko administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren administrazio-espedita biduali eta hirugarren interesatuak epatzeko dena. 6327

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

#### Zk-1662

4/2004 LEGEA, martxoaren 18koa, Errepideko Bidaia-ri Garraioarena.

Eusko Legebiltzarrak martxoaren 18ko 4/2004 Legea, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

MARTXOAREN 18KO 4/2004 LEGEA, ERREPIDEKO BIDAIAIARI GARRAIOARENA

#### ZIOEN AZALPENEA:

Lege honek errepideko bidaiari-garraioari erabateko erregulazio bat emateko premiari erantzuten dio, komunikabideena bezalako sektore estrategiko batean, sektore horren bilakaera guztiz lotuta baitago garapen ekonomikoarekin eta sozialarekin.

Hori dela eta, bidaiari-garraio publikoaren funtsezko izaera aintzatesten da, Euskal Autonomia Erkidego-gizartearen, ekonomiaren eta lurraldearen garapen eta kohesiorako sektore estrategiko eta oinarritzkoa baita, biztanleriaren mugikortasun-premia orokorrari erantzutera bideratua; hori guztia garapen jasangarriaren ikuspegitik. Zerbitzuaren segurtasuna eta kalitatea lehentasunezko elementuak dira bidaiarien garraio publikoaren antolamenduan.

Lege honek Autonomia Estatutuko 10.32 artikuluan ezarritako eskumen eskusiboan du jatorria eta oinarria, betiere arlo horretako boterearen lurralde-banaketari buruzko konstituzionaltasun-multzoko agindu horri eta beste agindu batzuei buruz Konstituzio Auzitegiak (batez ere ekainaren 27ko 118/1996 epaian) egin duen interpretazio-ildoan.

Gogorarazi behar da, gainera, uztailearen 30eko 16/1987 Legeak orokorrean heldu ziola estatu-eremu-

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ANUNCIO de remisión del expediente administrativo del recurso contencioso-administrativo n.º 1/04 y emplazamiento de terceros interesados. 6327

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### Nº-1662

LEY 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Viajeros por Carretera.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

LEY 4/2004, DE 18 DE MARZO, DE TRANSPORTE DE VIAJEROS POR CARRETERA.

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

La presente ley atiende a la necesidad de dotar de una regulación completa al transporte de viajeros por carretera en un sector estratégico como es el de las comunicaciones, cuya evolución está estrechamente ligada al desarrollo económico y social.

En este sentido, se reconoce el carácter esencial del transporte público de viajeros, siendo un sector estratégico y básico para el desarrollo y cohesión social, económica y territorial de la Comunidad Autónoma y destinado a satisfacer las necesidades globales de movilidad de la población, todo ello bajo el prisma del desarrollo sostenible. La seguridad y calidad del servicio son elementos prioritarios en la organización del transporte público de viajeros.

Esta ley tiene su origen y fundamento en la competencia exclusiva establecida en el artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía, dentro de la línea de interpretación que de este y otros preceptos del bloque de la constitucionalidad relativos a la distribución territorial del poder en la materia ha realizado el Tribunal Constitucional, básicamente en la Sentencia 118/1996, de 27 de junio.

Es preciso recordar que la Ley 16/1987, de 30 de julio, abordó con carácter general la ordenación de los

ko lurreko garraioen antolaketari, legeria sakabanatu eta zatikatu –eta, neurri handi batean, zaharkitu– bat berritzeko asmoz. Bereziki adierazi behar da aipatutako lege horrek berriaz jorratu zituela garraioaren arloko eskumen-banaketa (Estatuko Administrazioaren eta autonomia-erkidegoen arteko banaketa) itxuratzen duten konstituzio-printzipio batzuk. Horren ondorioz, Konstituzio Auzitegiak, aipatutako epai horretan (ekainaren 27ko 118/1996), konstituzio kontratatzat –eta, ondorioz, deuseztat– jo zituen legeko 2. artikuluko 1. paragrafoko 2. tartekia eta 2. paragrafoa, aplikazio-eremuari buruzkoak, bai eta 113. artikulutik 118. artikulura bitarteko artikulua eta hamargarren xedapen iragankorra ere, azken horiek herri barruko garraioari buruzkoak.

Aipatutako epai horretan adierazten dena aplikatuz, eta kontuan izanik egokia dela Euskal Autonomia Erkidegoko autobuseko bidaiari-garraioaren sektoreari erregulazio berezko bat ematea, lege hau egitea erabaki da. Hona hemen zein diren legearen irizpide orokorrak:

– Xedea, definizioak, printzipio orokorrak eta eskumen-araubidea zehazten ditu.

– Esku hartzeko ahalak zedarrizten ditu, intentsitate askotakoak, eta legeak erregulatzen duen garraioan, hau da, garraio-zerbitzu publikoan eta garraio-jardueren administrazio-antolaketan, esku hartzeko titulua zedarrizten ditu.

– Arau-esparru bat ezartzen du, bai terminologiari eta bai mamiari dagokionez, Estatuan dagoenarekin eta Europar Batasunetik datorrenarekin uztartua; horrela, beharrezkoak ez diren berrikuntzak saihesten ditu, eragile publikoen eta pribatuen jardunarentzat nahasbide –eta, beraz, kaltegarri– gerta baitaitezke.

– Gai honen funtsari buruzko erregulazio osoa eta sakona egiten du, eta erregelamendu-garapenerako uzten ditu alderdi instrumentalak, bigarren mailakoak edo periferikoak.

Legearen xedapen orokorrak xedeari, definizioei eta printzipio orokorrei buruzkoak dira. Legearen xedea da errepideko bidaiari-garraioa, herri barrukoa zein herri artekoa, erregulatzeko. Garraio hori bidaiariak –eta, zenbait kasutan, fardelak edo mandatuak– garraiatzeko bereziki egokitutako ibilgailuetan egiten da, bederatzi jarlekutik gorako edukiera duten ibilgailuetan, gidaria barne dela. Jakina, legearen eremua oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik igarotzen den garraiora mugatzen da. Era berean, jarduera lagungarri eta osagarri gisa, bidaiari-geltokiak ere erregulatzen dira.

Legeak erregulatzen dituen garraioak, bestalde, duen izaeraren, eragin-esparruaren eta aldizkakotasunaren arabera definitzen dira. Definizio horien artean, berriazko aipamena jasotzen dute bidaiari-garraio publiko erregularrek eta turismo-garraioek.

transportes terrestres en el ámbito estatal, con el objetivo de renovar una legislación dispersa y fragmentada y en gran medida anquilosada. Particularmente ha de señalarse que la citada ley incidió de forma específica en ciertos principios constitucionales que enmarcaban el reparto de competencias en el ámbito del transporte entre la Administración del Estado y las comunidades autónomas, y que como consecuencia de ello el Tribunal Constitucional, en la sentencia citada (118/1996, de 27 de junio), declaró inconstitucionales, y por consiguiente nulos, el inciso 2.º del párrafo 1.º y el párrafo 2.º del artículo 2 de la ley, referentes al ámbito de aplicación, así como los artículos 113 a 118 y la disposición transitoria décima, referentes estos últimos al transporte urbano.

En aplicación de lo señalado en la citada sentencia, y considerando la conveniencia de dotar al sector del transporte de viajeros en autobús en la Comunidad Autónoma del País Vasco de una regulación propia, se ha determinado la elaboración de esta ley, que se caracteriza por los siguientes criterios generales:

– Precisa el objeto, las definiciones, los principios generales y el régimen competencial.

– Delimita las potestades administrativas de intervención, de intensidad diversa, delimitando los diversos títulos de intervención en el transporte regulado por la ley, esto es, el servicio público de transporte y la ordenación administrativa de las actividades de transporte.

– Establece un marco normativo, tanto en el plano terminológico como en el de fondo, armónico con el existente en el Estado y el emanado de la Unión Europea, evitando innovaciones superfluas que pudieran confundir y con ello perjudicar la actuación de los distintos agentes públicos y privados.

– Efectúa una regulación exhaustiva de lo esencial de la materia, dejando al desarrollo reglamentario los aspectos instrumentales, secundarios o periféricos.

Las disposiciones generales de la ley se refieren al objeto, a las definiciones y a los principios generales. El objeto de la ley es la regulación del transporte, tanto urbano como interurbano, de viajeros por carretera que se efectúe en vehículos especialmente acondicionados para el transporte de viajeros y, en su caso, equipajes o encargos, con una capacidad superior a nueve plazas incluida la del conductor. Obviamente, el ámbito de la ley se circunscribe al transporte que transcurra íntegramente por el territorio de la Comunidad Autónoma. Igualmente se regulan, como actividad auxiliar y complementaria, las estaciones de viajeros.

Los transportes regulados por la ley se definen en función de su naturaleza, de su radio de acción y de su periodicidad. Mención específica reciben dentro de estas definiciones los transportes públicos regulares de viajeros y los transportes turísticos.

Legearen xede den gaian herri-agenteen jarduna zein printzipio orokorretara egokituko den ezartzen da, uztailearen 30eko 16/1987 Legean agertzen diren oinarriko printzipioei dagokienez; gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Jasangarriaren Gidaplanean aipatzen diren jarraibideak jasotzen dira (plan hori 2002ko azaroaren 19an egin zuen bilkuran) onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak.

Eskumen-araubideari dagokionez, legeak II. kapitulu eskaintzen dio araubide hori zehazteari, eta errespetu osoz agerrarazten du eskumen-banaketa. Banaketa hori azaroaren 25eko 27/1983 Legetik (Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremani buruzkotik) dator, bai eta gai horretan funtzioen eta zerbitzuen eskualdaketa arloan egin diren garapenetatik zein jatorria toki-erregimeneko legerian duten garapenetatik ere.

III. kapitulu plangintzari eta koordinazioari eskaintzen zaie, eta aipamen berezia egiten zaie garraio-planei eta beste garraio-modalitate batzuekiko koordinazioari.

«Erabiltzaileak» deitzen da IV. kapitulu. Kapitulu horretan, zabaltasunez eta zehaztasunez definitzen dira legean erregulatutako zerbitzuak edo jarduerak erabiltzen dituztenen eskubideak zein debekuak.

V. kapituluak, berriz, jarduera horren araubide juridikoa erregulatzen du. Lanbide-prestakuntzaren eskakizunak bat datoz Europako Batasunaren garraio-politikaren printzipioekin, batez ere merkatuaren saneamenduari eta eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea hobetzeari dagokienez, betiere erabiltzaileen eta garraiolarien mesedetan.

Administrazioaren esku-hartzea, berriz, jarduera egikaritzea ahalbidetzen duen titulu juridiko bat lortu beharrez osatzen da. Titulu hori modu arautuan esleitzen zaie, lanbidea egikaritzeko baldintza pertsonalak edukitzeaz gain, zerga, lan edo gizarte arloko egin-beharren jakitun daudenei.

Titulu gaitzaileek administrazio-baimenen forma juridikoa daukate, zerbitzu publikatueta izan ezik, horiek zerbitzu publikorako administrazio-emakidaren bidez gauzatu ahal izango baitituzte partikularrek. Bikoiztasun horrek araubide juridiko desberdina dakar, zeren Administrazioaren ahalek izaera desberdina baitute zerbitzuaren titulartasunean oinarritzen direnean.

Ildo horretatik, VI. eta VII. kapituluak bidaiari-garraioko herri arteko zerbitzu publikoari eta herri-intereseko garraio-zerbitzuei buruzko garraio-baimenei eskaintzen zaizkie. Lehenengo kasuan, zeharkako kudeaketaren aldeko lehentasuna sendesten da, bereziki zerbitzu publikoaren administrazio-emakidaren aldekoa, nahiz eta, salbuespen gisa, eskaintza publikoa eta zuzeneko ere aurreikusita egon. VI. kapitulu horretan,

Se establecen los principios generales a los que se ajustará la actuación de los poderes públicos en la materia objeto de la ley, con respeto a los principios básicos incluidos en la Ley 16/1987, de 30 de julio, y recogiendo las orientaciones apuntadas en el Plan Director del Transporte Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por el Consejo del Gobierno Vasco en sesión celebrada con fecha 19 de noviembre de 2002.

En lo que concierne al régimen competencial, la ley dedica su capítulo II a concretarlo, plasmando con escrupuloso respeto la distribución de competencias derivada tanto de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, así como los desarrollos en materia de trasposos de funciones y servicios operados en la materia, como las que tienen su origen en la legislación de régimen local.

El capítulo III se dedica a la planificación y coordinación, con especial mención a los planes de transporte y a la coordinación con otras modalidades de transporte.

«De las personas usuarias» se denomina el capítulo IV, en el que se define con amplitud y precisión tanto los derechos como las prohibiciones de quienes hagan uso de los servicios o actividades regulados en la ley.

El capítulo V regula el régimen jurídico para el desempeño de la actividad. Las exigencias de cualificación profesional entroncan con los principios de la política comunitaria del transporte, particularmente en lo que concierne al saneamiento del mercado y a la mejora de la calidad del servicio prestado en beneficio de usuarios y transportistas.

La intervención administrativa se complementa con la necesidad de obtener un título jurídico que permita el ejercicio de la actividad y se otorga, de forma reglada, a quienes, además de reunir las condiciones personales para ejercer la profesión, estén al corriente de sus obligaciones de carácter fiscal, laboral o social.

Los títulos habilitantes revisten la forma jurídica de la autorización administrativa, salvo en los servicios publicados, que podrán ser realizados por los particulares mediante concesión administrativa de servicio público. Esta dualidad implica un régimen jurídico diferente, ya que las potestades de la Administración tienen distinta naturaleza cuando se fundamentan en la titularidad del servicio.

En esta línea, los capítulos VI y VII se dedican al servicio público de transporte interurbano de viajeros y las autorizaciones de transporte referidas a los servicios de transporte de interés público. En el primer caso se consagra la preferencia por la gestión indirecta, especialmente por la concesión administrativa del servicio público, estando prevista la prestación pública y directa de forma excepcional. En este capítulo VI se han

uztailaren 30eko 16/1987 Legean biltzen diren emakiden araubideari buruzko oinarritzko alderdi batzuk jasotzen dira, proposatzen den erregulazioa hobeto ulertarazteko.

Garraio-baimenei dagokienez, legeak baimen bereziak (erabilera txikiko zerbitzu publikoak, aldi baterako garraio erregularrak, erabilera bereziko garraio erregularrak) eta beste baimen batzuk bereizten ditu; azken horien artean, eskatu ahalako garraioa, turismo-garraioak eta garraio pribatu osagarriak sartzen dira.

VIII. kapituluak herri barruko garraioa erregulatzen du, garraio horren araubide juridikoa ezartzen du, eta arreta berezia eskaintzen dio herri barruko eta herri arteko zerbitzu erregularren arteko beharrezko koordinazioari.

IX. kapitulua bidaiari-geltokiei eskaintzen zaie, errepideko bidaiari-garraioaren jarduera lagungarria eta osagarria denez, eta arreta berezia eskaintzen zaie geltokiaren ezarpenari, ezartzeko ekimenari eta ustiapenari, kokalekuari eta erabilera-araubideari.

Tarifa-araubidea X. kapitulan dago erregulatuta, eta aipatu behar da legeak arau batzuk ezartzeko ahalmena ematen diola Administrazioari. Tarifen berrikusketarako arau horietara egokitu behar da, eta, erabilera orokorreko zerbitzu publiko erregularrak direnean, faktore objektiboekin batera, emakida bakoitzaren produktibitatea uztartuko dute.

XI. kapitulua ikuskapen eta kontrol araubideari eskaintzen zaio, eta XII. kapitulua, zehatzeko araubideari; arau-hausteengatik administrazio-erantzukizuna, arau-hausteen definizioa eta sailkapena, eta aplikatu beharreko zehapenak ezartzen dira, bai eta neurri osagarriak, preskripzioa, eta eskumena eta prozedura ere.

Legeak, puntu horretan, erregulazio neurrikoa eta uztailaren 30eko 16/1987 Legeak ezartzen duenarekin arrazionalki lotua bilatu du, arau-hausteen eta zehapenen araubidearen behar ez bezalako zatikapena saihesteko. Hori guztia, gainera, zehapenak ezartzeko prozedurarekin uztartuko da, eta hori otsailaren 20ko 2/1998 Legean (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorretako Ahalmenari buruzkoan) xedatutakora egokitu behar da.

Legea hiru xedapen gehigarriekin, bi xedapen iragankorrekin, xedapen indargabetzaile batekin eta azken xedapen batekin osatzen da.

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.— Legearen xedea

1.— Lege honen xedea da errepideko bidaiari-garraioa erregulatzea, hala herri barrukoa nola herri artekoa; hain zuzen ere, bidaiariak —eta, zenbait kasutan, fardelak edo

recogido aspectos básicos del régimen de concesiones contenidos en la Ley 16/1987, de 30 de julio, a efectos de la mejor comprensión de la regulación propuesta.

En lo que concierne a las autorizaciones de transporte, la ley distingue entre las autorizaciones especiales (servicios públicos de baja utilización, transportes regulares temporales, transportes regulares de uso especial) y otras autorizaciones, entre las que se incluyen el transporte público discrecional, los transportes turísticos y los transportes privados complementarios.

El capítulo VIII regula el transporte urbano, estableciendo su régimen jurídico y prestando una especial atención a la necesaria coordinación entre los servicios regulares urbanos e interurbanos.

Se dedica el capítulo IX a las estaciones de viajeros, como actividad auxiliar y complementaria del transporte de viajeros por carretera, con especial mención a su establecimiento, iniciativa y explotación, ubicación y régimen de utilización.

El régimen tarifario queda regulado en el capítulo X, debiendo destacarse que la ley faculta a la Administración para establecer reglas a las que deberá ajustarse la revisión tarifaria, que conjuguen, junto a factores objetivos, la productividad de cada concesión, cuando se trate de servicios públicos regulares de uso general.

El capítulo XI se dedica al régimen de inspección y control, y el capítulo XII al régimen sancionador, estableciéndose la responsabilidad administrativa por las infracciones, la definición y clasificación de las infracciones y las sanciones aplicables, así como las medidas accesorias, la prescripción y la competencia y procedimiento.

La ley ha buscado en este punto establecer una regulación proporcionada y racionalmente conexas con la establecida por la Ley 16/1987, de 30 de julio, para evitar una innecesaria fragmentación del régimen de infracciones y sanciones, conjugando todo ello con el procedimiento para la imposición de sanciones, que habrá de ajustarse a lo dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, sobre la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La ley se completa con tres disposiciones adicionales, dos transitorias, una disposición derogatoria y una final.

## CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1.— Objeto de la ley

1.— El objeto de la presente ley es la regulación del transporte urbano e interurbano de viajeros por carretera que se efectúe en vehículos automóviles especial-

mandatuak—garraiatzeko bereziki egokitutako automobiletan, gidaria barne bederatzigarlektutik gorako edukiera dutenetan, egiten den garraioa, oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik igarotzen dena.

2.—Era berean, aurreko paragrafoan definitu den garraioaren jarduera lagungarri eta osagarri gisa, bidaiari-geltokiak erregulatzen dira.

## 2. *artikulua*.— Definizioak

1.—Duten izaeraren arabera, lege honetan aipatzen diren garraioak publikoak edo pribatuak izan daitezke.

a) Publikoak dira besteren kontura egiten direnak, ordainsari ekonomikoaren bitartez.

b) Garraio pribatuak dira norberaren kontura egiten direnak. Garraio pribatuak bi modalitatetakoak izan daitezke:

— Garraio pribatu partikularrak: garraio-mota horretakoak dira ibilgailuaren titularraren eta haren senideen izaera pertsonaleko edo partikularreko lekualdatze-premiak asetzeko egiten direnak. Horrelako garraioetarako erabiltzen diren ibilgailuek ez dute izango erregelamenduz ezarrita dagoen baino jarleku gehiago.

— Garraio pribatu osagarriak: mota horretakoak dira enpresek edo establezimenduek, xede nagusitzat garraioa ez dutenek, beren jarduera nagusiaren barruan, jarduera nagusi horiek behar bezala garatzeko osagarri beharrezko edo egoki gisa egiten dituzten garraioak.

2.—Duten eragin-esparruari jarraiki, errepideko bidaiari-garraio publikoa herri barrukoa edo herri artekoa izan daiteke.

Herri barrukoak dira oso-osorik udalerrri beraren barruan egiten diren garraioak; gainerako garraioak, berriz, herri arteko garraiotzat jotzen dira.

3.—Eskainitako zerbitzuen aldizkakotasunaren arabera, lege honetan erregulatzen diren garraioak erregularrak edo eskatu ahalakoak izan daitezke.

a) Erregularrak dira aurretik ezarritako ibilbideen barruan eta aurretik finkatutako egutegiei eta ordutegiei atxikita egiten direnak.

b) Eskatu ahalakoak dira aurretik ezarritako ibilbide, egutegi edo ordutegi bati atxiki gabe egiten direnak.

4.—Bidaiari-garraio publiko erregularrak honelakoak izan daitezke:

a) Jarraitutasunaren arabera, iraunkorrak edo aldi baterakoak:

— Iraunkorrak dira, baldin eta, izaera egonkorreko premiei erantzuteko, modu jarraituan egiten badira.

— Aldi baterakoak dira, baldin eta salbuespeneko edo unean uneko eta iraupen mugatuko izaera du-

mente acondicionados para el transporte de viajeros y, en su caso, equipajes o encargos, con una capacidad superior a nueve plazas incluida la del conductor, que transcurra íntegramente por el territorio de la Comunidad Autónoma.

2.—Igualmente se regulan en la presente ley, y como actividad auxiliar y complementaria de la de transporte definido en el apartado anterior, las estaciones de viajeros.

## *Artículo 2*.— Definiciones

1.—En función de su naturaleza, los transportes a que se refiere esta ley pueden ser públicos y privados.

a) Son públicos los que se llevan a cabo por cuenta ajena mediante retribución económica.

b) Son transportes privados aquellos que se llevan a cabo por cuenta propia, pudiendo revestir dos modalidades:

— Transportes privados particulares, que son los dedicados a satisfacer necesidades de desplazamiento de carácter personal o doméstico de la persona titular del vehículo y sus allegados y se realizan en vehículos cuyo número de plazas no exceda de los límites que se establezcan reglamentariamente.

— Transportes privados complementarios, que son los que se llevan a cabo, en el marco de su actuación general, por empresas o establecimientos cuyas finalidades principales no son de transporte, como complemento necesario o adecuado para el correcto desarrollo de dichas actividades principales.

2.—En función de su radio de acción, los transportes públicos de viajeros por carretera son urbanos e interurbanos.

Son urbanos los que transcurren íntegramente dentro del mismo término municipal, teniendo el resto de los transportes la consideración de transporte interurbano.

3.—Según la periodicidad de los servicios ofrecidos, los transportes regulados en esta ley pueden ser regulares o discrecionales.

a) Son regulares los que se efectúen dentro de itinerarios preestablecidos y con sujeción a calendarios y horarios prefijados.

b) Son discrecionales aquellos que se lleven a cabo sin sujeción a itinerario, calendario ni horario preestablecido.

4.—Los transportes públicos regulares de viajeros pueden ser:

a) Por su continuidad, permanentes o temporales:

— Son permanentes si se llevan a cabo de forma continuada para atender necesidades de carácter estable.

— Son temporales si están destinados a atender tráficos de carácter excepcional o coyuntural y de duración

ten trafikoei erantzuteko badira, nahiz eta aldizka izan.

b) Erabileraren arabera, erabilera orokorrekoak edo berezikoak dira:

– Erabilera orokorrekoak dira, baldin eta eskari orokorrari erantzutera zuzentzen badira eta edozeinek erabili ahal baditu.

– Erabilera berezikoak dira, baldin eta erabiltzailetalde berariazko bat (hala nola ikasleak, eskola-umeak, langileak eta antzeko taldeak) eta ez besterik zerbitzatzeko bideratuta badaude.

5.– Turismo-garraioak dira, aldizkakoak izan edo ez, bidaia-agentzien bidez eskaintzen direnak, beste zerbitzu osagarri batzuekin batera, hala nola ostatua, mantenua, turismo-gidaritza, etabar. Garraio horiek jolaseko, kulturako eta aisiako jardueri edo uanean uneko beste arrazoi batzuei lotutako joan-etorriak egin behar dituzten pertsonen premiak oro har asetzeko egiten dira.

6.– Erabiltzaileak dira lege honetan erregulatutako zerbitzuak edo garraio-jarduerak baliatzen dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak.

7.– Intermodalitatezat hartuko da garraio-modu desberdinen arteko lotura, baldin eta modu batetik bestera aldatzean zirkulazio-fluxua eteten ez bada.

### 3. artikulua.– Printzipio orokorrak

1.– Bidaia-erabileraren politikaren oinarria hau izango da: garraio-mota hori funtsezkoa dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen, ekonomiaren eta lurraldearen garapen eta kohesiorako sektore estrategiko eta oinarrizkoa dela aitortzea; eta politika horren helburua izango da erkidegoaren beraren mugikortasun-premia orokorrak eta garraioaren erabiltzaileen premia partikularrak asetzea.

2.– Hemen arautzen den gai honetan, herri-aginteen jarduna ondorengo helburu eta printzipio orokor hauei egokituko zaie:

a) Dauden mugikortasun-premiei erantzutea, ahalik eta eraginkortasun-maila handienarekin eta gizarte-kostu txikienarekin.

b) Erabiltzaileen eskubideak eta eginbeharrak aintzatestea, kalitatezko garraio-zerbitzuak izateko duten eskubideaz baliatu ahal izan daitezen.

c) Intermodalitatea sustatzea.

d) Herri barruko eta herri arteko garraio kalitatezkoak garatzea.

e) Teknologiaren garapena sustatzea, garraio garbi eta eraginkor baten alde.

f) Garraio-sistema jasangarri bat sustatzea, inguru-menaren printzipio eta helburuekin bat etorriz.

temporalmente limitada, aun cuando sea de forma periódica.

b) Por su utilización, de uso general o de uso especial:

– Son de uso general si están dirigidos a satisfacer la demanda general, siendo utilizables por cualquier interesado.

– Son de uso especial si están destinados a servir exclusivamente a un grupo específico de usuarios, tales como estudiantes, escolares, trabajadores y colectivos similares.

5.– Son transportes turísticos aquellos que, tengan o no carácter periódico, se prestan a través de las agencias de viaje conjuntamente con determinados servicios complementarios tales como los de alojamiento, manutención, guía turística, etcétera, para satisfacer de una manera general las necesidades de las personas que realizan desplazamientos relacionados con actividades recreativas, culturales, de ocio u otros motivos coyunturales.

6.– Son usuarios aquellas personas físicas y jurídicas que utilizan los servicios o actividades de transporte regulados en la presente ley.

7.– Se entenderá por intermodalidad la conexión de distintos modos de transporte, de manera que el flujo de tráfico no se interrumpa al pasar de un modo a otro.

### Artículo 3.– Principios generales

1.– La política del transporte público de viajeros se desarrollará sobre la base del reconocimiento de su carácter esencial y de sector estratégico y básico para el desarrollo y cohesión social, económica y territorial de la Comunidad Autónoma, y estará destinada a satisfacer las necesidades globales de movilidad de la propia comunidad y las necesidades particulares de las personas usuarias del transporte.

2.– La actuación de los poderes públicos en la materia objeto de regulación se ajustará a los siguientes objetivos y principios generales:

a) La satisfacción de las necesidades existentes de movilidad con el máximo grado de eficacia y el mínimo coste social.

b) El reconocimiento de los derechos y obligaciones de las personas usuarias para hacer efectivo el derecho de acceso a unos servicios de transporte de calidad.

c) El fomento de la intermodalidad.

d) El desarrollo de transportes urbanos e interurbanos de calidad.

e) El fomento del desarrollo de la tecnología al servicio de un transporte limpio y eficaz.

f) El fomento de un sistema de transporte sostenible en consonancia con los principios y objetivos medioambientales.

## II. KAPITULUA ESKUMEN ARAUBIDEA

### 4. *artikulua*.– Eskumen-araubidea

1.– Eusko Jaurlaritzari dagozkio lanbide-trebakuntzaren aintzatesteari buruzko eskumenez baliatzea, legearen arau-garapena, bai eta koordinazioa eta goi-ikuskaritza ere. Ikuskaritza hori egiaztatze edo fiskalizazio jardueren bidez gauzatu da, bai eta ikuskaritza-planak landuz eta koordinatuz ere.

Eusko Jaurlaritzak, era berean, plangintza orokorra egingo du eta herri arteko garraioaren tarifak ezarriko ditu.

2.– Foru-aldundien eskumena da, ordea, aipatutako plangintzaren garapena, IX. kapituluan bidaiari-geltokien inguruan aurreikusten diren ahalmenez baliatzea, eta lege honetan araututako herri arteko garraioaren jardueran aritzeko administrazio-titulu gaitzaileak ematea.

Zerbitzu publikorako administrazio-emakidetan, foru-aldundiek eskumena izango dute, kasu hauetan, zerbitzuak sortu, esleitu, bateratu, aldatu, ezabatu eta berreskuratzeko:

- a) Bidaiarien garraio-zerbitzua lurralde historikoaren barruan gauzatzen denean oso-osorik.
- b) Lurralde historikoaz gaindikoa izan arren, handik kanpora igarotzeko debekua dutenean.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko zerbitzuak izanik, eta aurreko kasuetan sartzen ez direlarik, ibilbide-zatirik handiena lurralde historikoaren barruan dutenean.

Foru-aldundiek, era berean, herri arteko garraiorako administrazio-baimenak esleituko dizkiete garraio-zerbitzuei, baimen horiek aginduzkoak direnean, nork bere lurralde historikoan egoitza duen garraio-zerbitzuari.

Foru-aldundiek egingo dute herri arteko garraioaren zuzeneko ikuskapena, eta lurralde historikoaren barruan egindako arau-hausteengatik hasitako zehapen-espeditentak izapidetu eta ebartziko dituzte.

3.– Udalek eskumena izango dute, herri barruko garraioaren arloan, bidaiari-garraio publikoaren zerbitzuak antolatu, kudeatu eta ikuskatzeko eta dagozkion zehapenak ezartzeko; orobat, dagozkion titulu gaitzaileak esleitzeko eta tarifa-araubidea finkatzeko, gai horri buruzko legeria aplikagarrian xedatutakoari jarraituz. Era berean, bidaiari-geltokien inguruan IX. kapituluan ezartzen diren eskumenez ere baliatuko dira.

## CAPÍTULO II RÉGIMEN COMPETENCIAL

### *Artículo 4.*– Régimen competencial

1.– Corresponde al Gobierno Vasco el ejercicio de las competencias sobre reconocimiento de la capacitación profesional, el desarrollo normativo de la ley, la coordinación y la alta inspección, que se llevará a cabo mediante actuaciones de verificación o fiscalización y elaboración y coordinación de planes de inspección.

El Gobierno Vasco realizará también la planificación general y fijará las tarifas del transporte interurbano.

2.– Es competencia de las diputaciones forales el desarrollo de la planificación, el ejercicio de las facultades previstas en el capítulo IX en relación con las estaciones de viajeros y la expedición de los títulos administrativos habilitantes para el ejercicio de la actividad del transporte interurbano que se regula en esta ley.

En las concesiones administrativas de servicio público, las diputaciones forales serán competentes para la creación, otorgamiento, unificación, modificación, supresión y rescate de los servicios en los siguientes casos:

- a) Cuando se desarrollen íntegramente dentro del territorio histórico.
- b) Cuando, aun trascendiendo del territorio histórico, tengan prohibición de tráfico fuera de él.
- c) Cuando se trate de servicios de competencia de la Comunidad Autónoma y, no estando comprendidos en los casos anteriores, tengan su mayor recorrido dentro del territorio histórico.

Las diputaciones forales otorgarán, igualmente, las autorizaciones administrativas para el transporte interurbano, cuando estas resulten preceptivas, a los servicios residenciados en el respectivo territorio histórico.

Las diputaciones forales efectuarán la inspección directa del transporte interurbano y tramitarán y resolverán los expedientes sancionadores por las infracciones cometidas dentro del territorio histórico.

3.– Los ayuntamientos son competentes, dentro del ámbito del transporte urbano, para la ordenación, gestión, inspección y sanción de los servicios de transporte público de viajeros, otorgamiento de los correspondientes títulos habilitantes y fijación del régimen tarifario con sujeción a lo dispuesto en la legislación aplicable al respecto. Igualmente, ostentarán las competencias que se establecen en el capítulo IX, en relación con las estaciones de viajeros.

### III. KAPITULUA PLANGINTZA ETA KOORDINAZIOA

#### 5. *artikulua*.– Plangintza

1.– Administrazioek, indarrean dagoen legeriak ematen dizkien eskumenak baliatuz, lege honetan araututako garraioaren bilakaera eta garapena planifikatu ahal izango dituzte, garraio-sistemaren multzoarekin uztartuz garapen harmoniko eta orekatu bat bultzatzeko.

2.– Garraio-planek gai hauen inguruko aurreikuspenak edukiko dituzte:

a) Zuzeneko kudeatze publikoko zerbitzu edo jarduerak.

b) Garraio erregularren sarearen edo horren oinarriko ardatzen diseinu orokorra eta beste garraio-sistema batzuekiko integrazioa.

c) Zona jakin baterako edo batzuetarako garraio debeku edo murrizketak, hala behar izanez gero.

d) Garraioa edo garraio-mota batzuk sustatu eta laguntzeko neurriak, hala behar izanez gero.

3.– Planak lantzeko eta onartzeko prozedura erregelamendu bidez zehaztuko da.

#### 6. *artikulua*.– Koordinazioa

1.– Lege honen xede diren errepideko bidaiari-garraioak beste garraio-modalitate batzuei dagozkien zerbitzuekin koordinatuko dira, horri buruz aplikagarria den legeriak xedatzen duenarekin bat etorritz.

2.– Eusko Jaurlaritzak, bere eskumen-eremuaren barruan, lege honek aipatzen dituen errepideko bidaiari-garraioak beste garraio-modalitate batzuei dagozkien zerbitzuekin koordinatuko ditu, bai eta garraioarekin lotutako Administrazioaren beste jarduera-eremu batzuekin ere, erregelamendu bidez zehazten den eran.

### IV. KAPITULUA ERABILTZAILEAK

7. *artikulua*.– Administrazio-jardunaren printzipio orokorrak

1.– Herri-administrazioek, lege honetan eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen legerian xedatutakoarekin bat etorritz, erabiltzaileen parte-hartzea ziurtatzen duten mekanismoak egituratuko dituzte; horrela, erabiltzaileek, beren ordezkartza-antolakunde bidez, garraioari buruzko Administrazioaren xedapenak eta ebazpenak (eurei dagozkienak) lantzeko eta aldatzeko prozeduran parte hartuko dute. Era berean, ordezkartza-antolakunde horiek garraio-sistemaren plangintzan eta kudeaketan izango duten parte-hartzea sustatu eta bideratuko dute.

2.– Herri-administrazioek jakinaren gainean edukiko dituzte erabiltzaileak, eskueran dituzten garraio-sis-

### CAPÍTULO III DE LA PLANIFICACIÓN Y COORDINACIÓN

#### *Artículo 5.*– Planificación

1.– Las diferentes administraciones, en ejercicio de las competencias atribuidas por la legislación vigente, podrán planificar la evolución y desarrollo del transporte regulado en esta ley a fin de propiciar su desarrollo armónico y equilibrado, engarzándolo con el conjunto del sistema de transportes.

2.– Los planes de transporte contendrán previsiones sobre las siguientes cuestiones:

a) Los servicios o actividades de gestión pública directa.

b) El diseño general de la red de transportes regulares o de sus ejes básicos y su integración con otros sistemas de transporte.

c) Las prohibiciones o restricciones de transporte en zona o zonas determinadas si procedieran.

d) Las medidas de fomento y apoyo al transporte o a determinadas clases del mismo si procedieran.

3.– El procedimiento de elaboración y aprobación de los planes se determinará reglamentariamente.

#### *Artículo 6.*– Coordinación

1.– Los transportes de viajeros por carretera objeto de la presente ley se coordinarán con los servicios correspondientes a otras modalidades de transporte, de conformidad con lo que disponga la legislación aplicable al efecto.

2.– El Gobierno Vasco, dentro del ámbito de sus competencias, coordinará los transportes de viajeros por carretera a que se refiere esta ley con servicios propios de otras modalidades de transporte, así como con otros ámbitos de actuación administrativa relacionados con el transporte, en la forma en que reglamentariamente se determine.

### CAPÍTULO IV DE LAS PERSONAS USUARIAS

*Artículo 7.*– Principios generales de actuación administrativa

1.– Las administraciones públicas, de conformidad con lo dispuesto en esta ley y en la legislación de consumidores y usuarios, articularán los mecanismos que garanticen la participación de las personas usuarias, a través de sus organizaciones representativas, en el procedimiento de elaboración o modificación de las disposiciones y de las resoluciones administrativas referentes al transporte que les afecten. Asimismo, fomentarán y canalizarán la participación de dichas organizaciones representativas en la planificación y gestión del sistema de transportes.

2.– Las administraciones públicas mantendrán informadas a las personas usuarias de las prestaciones del sis-



temaren eskaintzei buruz, bai eta zerbitzu horien aldaketari buruz ere. Era berean, jakinaren gainean edukitako behar harko dituzte lege honen xede diren garraio-zerbitzuak eskaintzeko baldintzei buruz.

#### 8. artikulua.— Eskubideak

Lege honetan araututako zerbitzuak edo jarduerak erabiltzen dituztenek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen legerian jasotako eskubideak edukitako dituzte, eta, nolahi ere, ondorengo hauek:

a) Enpresetako langileengandik tratatu zuzena jasotzeko eskubidea. Langile horiek erabiltzaileek eskatzen dizkieten laguntza eta informazio eskaerei erantzun behar harko diete, zerbitzuarekin zerikusia duten gaietan.

b) Ibilgailu eta ezarritako geltoki guztietan, errekamazioen liburua eta/edo orria eskatzeko eta lortzeko eskubidea. Liburu edo orri horretan, zerbitzuaren eskaintzari buruzko edozein errekamazio azaldu ahal izango dute.

c) Ibilgailuak erosotasun, higiene eta segurtasun baldintzetan —eta, hala balegokio, behar bezalako irisgarritasun-baldintzetan— erabiltzeko eskubidea, bai eta zerbitzu erregularra eta puntuala lortzekoa ere.

d) Zerbitzua bertan behera uzten bada, ordaindutakoa berriro jasotzeko eskubidea.

e) Eskuko gauzakiak edo fardelak eramateko eskubidea, beste bidaiari batzuei enbarazurik edo arriskurik ez eragitekotan.

f) Txartela edo ordainagiria jasotzeko eskubidea.

#### 9. artikulua.— Debekuak

Lege honetan araututako zerbitzuak edo jarduerak erabiltzen dituztenek ondorengo debeku hauek begiratu behar harko dituzte:

a) Ibilgailuetara edo ibilgailuetako edozein konpartimentutara sartzeko ateak irekitzeko edo ixteko mekanismoetan ibiltzea, edo mekanismo horien funtzionamendua eragozteko edo bortxatzea, garraio-enpresako langileek soilik eragitekoak direnean.

b) Ibilgailuan larrialdietarako ezarritako dauden segurtasun edo sorospen mekanismoetako edozein bidezko arrazoirik gabe erabiltzea.

c) Ibilgailua uztea edo ibilgailura sartzeko horretarako ezarritako geltokietatik kanpo, edo ibilgailua mugitzen ari dela, bidezko arrazoirik egon ezean.

d) Ibilgailua abian dela, gidariaren arreta galeraz dezakeen edo gidariaren lana oztopa dezakeen edozein ekintza egitea, bidezko arrazoirik gabe.

e) Erabiltzaileentzat prestatuta ez dauden lekuetan bidaiatzea.

tema de transportes que en cada momento se encuentren a su disposición, así como de sus modificaciones. Igualmente, deberán mantenerlas informadas de las condiciones en las que se prestarán los servicios de transporte objeto de la presente ley.

#### Artículo 8.— Derechos

Quienes utilicen los servicios o actividades regulados en la presente ley tendrán los derechos recogidos en la legislación de consumidores y usuarios, y, en todo caso, los siguientes:

a) Recibir un trato correcto por parte del personal de las empresas, que deberá atender las peticiones de ayuda e información que le sean solicitadas por los usuarios en asuntos relacionados con el servicio.

b) Solicitar y obtener en todos los vehículos y en las terminales establecidas el libro y/o hojas de reclamaciones, en que podrán exponer cualquier reclamación sobre la prestación del servicio.

c) Utilizar los vehículos en condiciones de comodidad, higiene y seguridad, y, en su caso, en las debidas condiciones de accesibilidad, así como obtener un servicio regular y puntual.

d) Obtener el reintegro del importe del viaje en caso de suspensión del servicio.

e) Portar objetos o bultos de mano, siempre que no supongan molestias y peligro para otros viajeros.

f) A la expedición del oportuno billete o justificante de pago.

#### Artículo 9.— Prohibiciones

Quienes utilicen los servicios o actividades regulados en la presente ley estarán sujetos a las siguientes prohibiciones:

a) Impedir, manipular o forzar los mecanismos de apertura o cierre de las puertas de los vehículos o de cualquiera de sus compartimentos previstos para su accionamiento exclusivo por el personal de la empresa transportista.

b) Hacer uso, sin causa justificada, de cualquiera de los mecanismos de seguridad o socorro instalados en el vehículo para casos de emergencia.

c) Abandonar o acceder al vehículo fuera de las paradas en su caso establecidas al efecto, o mientras el mismo está en movimiento, salvo que exista causa justificada.

d) Realizar sin causa justificada cualquier acto susceptible de distraer la atención del conductor o entorpecer su labor cuando el vehículo se encuentra en marcha.

e) Viajar en lugares distintos a los habilitados para los usuarios.

f) Ibilgailuetan erretzea, edota garraio-geltokietan horretarako prestatuta dauden tokietatik kanpo ere, gai horren gaineko berariazko araudian ezarritako baldintzen arabera.

g) Garraio-txartelik gabe bidaiatzea, edo bidaiaren ezaugarrien eta dagokion emakidan edo baimenean ezarritako erabilera-baldintzen arabera nahikoa ez den txartel batekin bidaiatzea, edota eskuratutako txartela behar bezala ez erabiltzea.

h) Gainerako erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan jar dezakeen jokabide oro, edota erabiltzaile horientzat edo garraio-enpresako langileentzat, bai eta bere zerbitzuak terminal edo bidaiari-geltokian eskaintzen dituen enpresako langileentzat ere, gogaikarria edo iraingarria gerta daitekeena.

i) Ibilgailuak edo garraio-geltokiak hondatzea edo zikintzea eragin dezakeen ekintza oro.

j) Zerbitzua behar bezala eskaintzearen inguruan eta zerbitzua eskaintzerakoan zaindu beharreko segurtasun-baldintzen inguruan dagokion emakidaren edo baimenaren titular den enpresako langileek egindako oharrei kasurik ez egitea, edota ibilgailuetan eta garraio-geltokietan horretarako agerian jarritako horma-irudietan ohartarazitakoari kasurik ez egitea.

k) Herri-bidea hondatu edo zikindu ahal duten gauzak edota beste pertsona batzuei lesiorik eragin diezaitezkeenak ibilgailutik kanpora botatzea.

## V. KAPITULUA

### GARRAIO PUBLIKOKO JARDUERAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

#### LEHENENGO ATALA

#### LANBIDEAN JARDUTEKO BALDINTZAK

##### 10. *artikulua*.– Baldintza orokorrak

1.– Ondorengo paragrafoetan ezartzen diren baldintza subjektiboak eta objektiboak betetzen dituzten pertsonak egin ahal izango dute lege honetan erregulatzen den garraio publikoa.

2.– Baldintza subjektiboak honako hauek dira:

a) Europar Batasuneko edozein estatutako nazionalitatea izatea, edota nazioarteko itunetan edo tratatuetan xedatutakoaren arabera baldintza hori eskatzerik ez dagoen estatu batekoa; edo, bestela, indarrean dagoen legeriaren arabera beharrezkoak diren baimenak edukitzea, lanerakoak eta bestelakoak.

b) Lanbide-trebakuntza egokia egiaztatzea, hau da, garraiolaritza jarduteko beharrezkoa den jakite-mailaren jabe dela egiaztatzea.

Beharrezkoa den gutxieneko jakite-maila, jakite-maila hori eskuratzeko modua, maila horren jabe dela

f) Fumar en los vehículos y en lugares distintos a los habilitados a tal fin en estaciones de transporte, en los términos que resulten de la normativa específica sobre la materia.

g) Viajar sin título de transporte o con título que resulte insuficiente en función de las características del viaje y condiciones de utilización previstas en la correspondiente concesión o autorización, así como el uso indebido del título que se posea.

h) Todo comportamiento que implique peligro para la integridad física de los demás usuarios o pueda considerarse molesto u ofensivo para estos o para el personal de la empresa transportista o de la que preste sus servicios en la terminal o estación de viajeros.

i) Toda acción que pueda implicar deterioro o causar suciedad en los vehículos o estaciones de transporte.

j) Desatender las indicaciones que formule el personal de la empresa titular de la correspondiente concesión o autorización en relación con la correcta prestación del servicio y las condiciones de seguridad que deban observarse durante el mismo, así como lo indicado a tal fin en los carteles colocados a la vista en los vehículos o estaciones de transporte.

k) Arrojar desde el vehículo objetos que puedan deteriorar o causar suciedad en la vía pública, o causar lesiones a otras personas.

## CAPÍTULO V

### RÉGIMEN JURÍDICO PARA EL DESEMPEÑO DE LA ACTIVIDAD DE TRANSPORTE PÚBLICO

#### SECCIÓN PRIMERA

#### EJERCICIO DE LA PROFESIÓN

##### *Artículo 10*.– Requisitos generales

1.– El transporte público regulado en esta ley podrá ser realizado por aquellas personas que cumplan los requisitos subjetivos y objetivos que se establecen en los apartados siguientes.

2.– Constituyen los requisitos subjetivos:

a) Tener nacionalidad de cualquier estado miembro de la Unión Europea o bien de un país con el que, en virtud de lo dispuesto en tratados o convenios internacionales, no sea exigible el citado requisito, o, en otro caso, contar con las autorizaciones y permisos de trabajo necesarios, con arreglo a lo dispuesto en la legislación vigente.

b) Acreditar la adecuada capacitación profesional, entendida como posesión de aquellos conocimientos necesarios para el ejercicio de la actividad de transportista.

Los conocimientos mínimos obligatorios, el modo de adquirirlos, el sistema de comprobación por la Admi-

egiazatzeko Administrazioak erabiliko duen sistema, bai eta trebakuntza hori egiaztatzen duten dokumentuak ematea ere, horiek guztiak indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzen arabera eskatuko dira.

Taldeko enpresa edo erakundeetan, nahikoa izango da enpresa benetan eta jarraitasunez zuzentzen duten pertsonetako baten batek lanbide-trebakuntzaren eskakizuna betetzea.

Banakako enpresetan, titularrak lanbide-trebakuntzaren eskakizun hori betetzen ez badu, nahikoa izango da enpresa benetan eta jarraitasunez zuzentzen duen beste norbaitek eskakizun hori betetzea.

Eskakizun hori bete izan duen pertsona hilko balitz edo ezintasun fisikoren edo legezkoen batek joko balu, Administrazioak, erregelamendu bidez zehaztutako eran, jardueran jarraitzeko baimena eman dezake, gehenez ere hamabi hilabeteko aldi baterako (aldi hori beste sei hilabetez luza daiteke behar bezala justifikatutako kasu partikularretan), nahiz eta lanbide-trebakuntzaren eskakizuna bete ez.

c) Ohoragarritasunaren baldintza betetzea, hau da, ondorengo egoera hauetako ezeinetan ez egotea:

1) Doluzko delituengatik epai irmo baten bidez espetxe-zigorrekin kondenatua izan izana, zigorraren ezereztatzea lortua ez duen bitartean.

